

EUSKERAZKO

KONTUAK

XII

Arrantzale baten seme gazte bat, botilla bat artu ta sagardo billa zijuau; birian zijuala chirrist egin zuben, eta begi onduan egin zitzayon sajara bat, lurra jozubenian; odola zeriyoia negarres zegon gisaraioa, eta ontan inguratu zan gizon langille beartsu bat, eta esan ziyon:

—Ez negarrik egin chiki, ori ez dek ezer; to chanpona; eta bere patrikarako musu sapiya edo pañueluakin lotu eta echera bigaldu zuben.

Mutillak esan ziyon aitari echera joan zanian:

—Aita; erori egiñ naiz ta miñ artu det.

—Eta zeñek pañuelu ori jarri dik?

—Langille batek.

—Esagutzen al dek?

—Arpegiz bai.

—¡Jainkuak bedeinka dezala!

.....

Urrengo egunian itsasotik etorri ziranian kai muturrian zegon langille ura, eta esaguturik mutillak chalupatik, oju egin ziyon aitari:

—Aita, goiyan dagon gizon ori da chanpona eman eta kopeta lotu zirana.

Orduan aitak chalupako iru legatzik aundiyeñak artu ta igo zan ongille arregana eta esan ziyon:

—Aiskiria; atzo nere semeari egin zeniyon meseriagatik, torizkitzu legatz abek, eta pañuelua aren ordeztori neria.

¡Beti izandu da arrantzale euskaldunen artian biyoztasun paregabia!

Josè ARTOLA

EUSKERAZKO

KONTUAK

XIII

Mutill baserritar bat morroi jarri zan aberatz eche batian.

Bein beartu ziran eche artako nagusiyak erremeriyo batetzaz, eta nola etzegoen erriyan, bigaldu zuten mutill morroi au, andik sei orduko bide zegon erri nagusira, esanaz:

—Naiz ler egin, aguro ekarri bear dezu.

Gisarajo arrek ekin ziyon korrika bidean ta lau orduban jira eginik etorri zan, aboa aparretan zeukala, ta zutik egin egonik. Echekuak esan ziyoten: Gisarajoa, naikua egin dezu, ta orain zuaz oyera nekiak uster.

Eskutatu zan gelarik onenian.

Nagusiyak andik laister, ikusi nairik nola zegoen, joan ziran beregana, ta arkitu zuten anka biyak burukuan zeuzkala, ta esan ziyoten arriturik:

—Bañan gizona, oker zaude, or buruba jartzen da. Eta ark erantzuten diyote:

—Jaunak, ondo dakit nik zer egiten detan.

—Egiyaz?

—Bai; neri anak nekatu zaizkit bai, ta argatik dauzkat buruko legunian obetuago *deskantzatiatik*.

JOSÉ ARTOLA